


Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko urtarrilak 12

Ramon
Elkororen
Diakonoitza

Tripartittoa
eta Euskara

Pedro
Mendieta



Aretxagazeta berri on!

EBOLUZIO ARGIA



mecatronic
DE AZBE



Zer ekarri dizu Olentzerok? Eta Erregeek?

Oñatz Agirre

-6 urte--

Olentzerok txamarra bat, alkondara bat, liburu bat eta saskibaloian jolasteko saskia.

Erregeek ostera etxerako zapatilak ekarri dizkidate.



Katalin Antxia

-6 urte--

Olentzerok kuleruak, marrazteko mahai bat, marguak eta kartulinak.

Erregeek, aldiz, galtzak, aterkina, pijama eta josteko jostailu bat ere oparitu dizkidate



Eukene Marrodan

-6 urte--

Olentzerok irakurtzeko bi ipuin ekarri dizkit, zapatila batzuk eta diablo bat.

Erregeek ipuin bat, puzle bat eta "Flota Urperatu" jokua.



Paulo Casal

-6 urte--

Olentzerok eta Erregeen artean kalerako zapatilak, panpin haundi bat eta playmobil bat, panpin txiki bat, ekarri dizkidate.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Urte berriaren erronka

Irakurle lagunok:

Joana zaigu dagoeneko 1994 zaharra, eta urte berriaren atarian denok izaten ditugu asmo berriak. Botikan bezala, hamaika motatako eskaerak dira urtearen hasieran egiten ditugunak: dirua, osasuna, pakea, maitasuna, etab. Hor dago koska.

Edozein gizakik bezala, **ARETXA-GAZETAK** ere bere eskaerak argi eta garbi zeuzkan: besteak beste, formatoz eta diseinuz aldatzea, hain zuzen.

Zergatik eta zertarako aldaketa horiek? Formatoaren aldatetari dagokionez, alde batetik estetikak (notiziak, argazkiak eta iragarkiak argiago eta garbiago azalduko dira, tokia handiagoa izango baita) eta bestetik herri aldizkariaren publizitateak estandarizata daukan tamainuak bultzatu gaituzte horretara (batez ere, kontrazalean publizitatea

egiten dutenek egindako eskaera). Diseinuari dagokionez, noizbehinka denok joaten gara ilea apaintzera eta egin beharreko txukunketak egitera. **ARETXAGAZETAK** laster (martxo aldera) hirugarren urtebetetze-eguna ospatuko du, eta sortu zenez geroztik maketa berari jarraitu dio. Zuzendaritza-batzordearen ustetan, itxura aldatzeko eta, batez ere, modernizatzeke eta gaurkotzeko sasoia da. Beraz, aldatetaren arrazoiak funtzionalak izan dira, beti ere praktikotasuna bilatu nahaian.

Hala ere, **ARETXAGAZETAK**o atea **H**parez-pare zabalik daude zuen sugerentziak jasotzeko. Guztion neurrirako aldizkaria da lortu behariko gureena. Hortxe dago aldizkariaren arrakastaren gakoa.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

GABONAK AMAITU DIRA



Hemen daude erregeak, bidai luzea egin ondoren

Erregiek bukaera eman zioten aurtengo Gabonei

Bukatu dira Gabonak. Behar den baino gehiago jan eta edan ondoren, eguneroko bizimodura bueltatzea da tokatzen dena.

Erregeak dira egun berezi hauei bukaera ematen dietenak. Horrela, aurreko egunean Errege-Kabalgata izan genuen Atxabaltan.

Umeez euren oparizerranda emateko aukera izan zuten, hurrengo egunean euren ametsak beteta ikusteko asmoz.

Hurrengo urterarte itxaron beharko dugu Meltxor, Gazpar eta Baltasar ikusteko. Orduan opari gehiagoz bueltatuko dira, merezi duenarentzat behintzat...

INAZIO GALDOSEN 5. INFORMEA

Begietako operazio bat izan da Inazio Euskal Herrira itzultzearen arrazoa. Hau aprobeztatuz, *adivasi*en egoerari buruz azterketa zehatza egin zuen.

Unai Proiektua sortu zenetik lan asko egin da India aldean. Orain, lan honek eman dituen fruituen balorazioa egiteko ordua etorri da.

Dagoeneko, besteak beste, 287 lur ha. berdindu dira; 16 ur putzu eraiki; hazi eta ongarririk banatu eta fruitu arbolak ere landatu dira. Bestalde, 12 haurtzandegi eraikitzea lortu da.

Ahalegin hauen ondorioak oso garbiak dira:

- Uztak bikoiztu egin dira.
- 16 ur-putzutatik 15ek ur jario aberatsa dute.
- Arroz soloetan eraikitako horma euskarriek arroza egoki babestu dute monzoi garaiko euriteetatik.
- Haurtzandegietara ehundaka haur joaten dira herritxo haien geroa modurik zihurrenean indartzuz.

Hau ikusita, bertako nekazariak proiektuaren luzapena eskatu dute. Luzapen honek 6 milioi inguruko aurrekontua du, baina orainarte egindako lanak merkeago irten direnez 3.646.920 pzta. aurreratu dira, beraz, **2.368.080 pzta.** dira lortu nahi den diru kopurua. Azken ahalegin bat egitea merezi du eta horretarako hona hemen Unai Proiektuaren kontu korronteen zenbakiak:

- | | |
|-------------------|---------------|
| • Euskadiko Kutxa | 038.0.04435.3 |
| • Kutxa | 0651124/0 |

Elkarteen arteko Mus Txapelketa

Aspaldidanik, kafe ostean musean jolastea sakratua da Euskal Herrian. Elkarte askotan ezinezkoa da kafe ostean partidarik ez egotea.

Horrela, duela aste batzuk

hasi zen Atxabaltako Elkarteen arteko mus txapelketa. 6 elkarten parte hartzen dute: Muru-alde, Uratz-alde, Urbaltz, Larriño, Eguzki-alde eta Hibai-gainek.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA



IBARRA
ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13-1-A
Tfnoa: 79 71 55

DIAKONOTZA, APAIZA IZATEKO BIDEA

Ramon Elkororen kristau birbaiezpena

Ramon Elkorok, 50 urteko atxalbaltarra, aurreko zapatuan diakonotza hartu zuen. Setien Gotzaiak zuzendu zuen ekintza, Jon Molina atxabaltarrak lagunduta. Atxa baltar ugari elkartu zen parrokian.

Aurreko urtarrilaren 7an, Atxabaltako parrokian ospakizun berezia izan zen, Ramon Elkororen diakonotza hain zuzen. Baina zer da diakono izatea? Betidanik egon dira. Euren eginkizuna apaizari laguntzea da. Ezin dute mezarik eman ezta aitortzarik zuzendu ere, baina ezkontzak eta bataioak adibidez ospatu ditzakete. Diakonotza, apaiza izateko ematen den pausua da eta zelibatoa onartzen dute. Horrela, hemendik 6 hilabetera, Ramon Elkorok Donostian ospatuko den ekintzan apaiza izateko bidea hartuko du.

Arraro samar egin daiteke 50 urterekin erabaki hau hartzea, baina Ramon aspaldidanik ibili da kristau munduan. Soldaduzka ondoren, Frantziara joan zen elkarte erlijiosu batetara. Geroago Zaragoza aldean egon zen berriz Atxabaltara bueltatzeko. Hemen bizimodu laikoa egin zuen eta orduan konturatu zen bere benetako bizimodua kristautasunarekin lotuta zegoela. Bere benetako bidea aurkitu eta gero, Hego-Ameriketara joan zen. Irakasle lanetan aritu zen eta apaiza bati laguntzen zion bere zereginetan. Bost urte



Ramon, Setien Gotzarekin, ospakizunaren une batean

igaro ondoren berriz bueltatu zen Atxabaltara eta Teologia ikasketak Frantzian burutzea erabaki zuen, lehenago egondako elkartean. Urtebete egin zuen Frantzian eta gero Donostian beste lau urtez egon zen, baina berriz Hego-Ameriketara joateko irrikian zegoen eta 5 urte egin zituen Venezuelan. Han zegoela, apaiza izateko aukera bururatu zitzaion eta ideiak argitzeko Andaluzian bi urte eta Zaragozan beste urtebete egin zituen. Horrela, apaiza izan behar zuela konturatu zen eta Setien Gotzaiari jakinarazi zion bere asmoa. Hau ikusi eta gero, Iruñako parrokia batetara joan zen eta laister bere helburua beteta ikusiko du: apezgoa.

JANTZI DENDA

A S E N S I O

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABAETA

JANARI DENDA

- Bereziki: • Harategia
• Urdaitegia
• Fruitategia

I M A N O L

Gorbea kalea
Tfnoa: 79 05 83

Aretxabaeta
(Gipuzkoa)

DOIKALSE

Electroerosion
Rectificado

Poligono Basabe C-1-1
Aretxabaeta
Tfno: 79 82 44

GARBITU S. COOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

7. Gabon Eskaparate Leihaketa



Arenaza Altzariak irabazitako plaka eskaparatean ipini zuen

Gabonetan, Atxabaltako dendak ohizkoa den baino txukunagoak azaldu dira. Gehienek Gabon egunetako adierazgarriren bat jarri dute egun berezi hauek bereizteko.

Honetaz gain, Atxabaltako Udalak Eskaparate

Lehiaketa antolatu du, nolabait merkatariak animatu asmoz. Epaimahaia hurrengoko hauek osatu dute:

- Aitor Antxia
- Lorenzo Fernandez
- Inma Miguel
- Felix Beltran
- Gotzone Guemes

Sariak :

- 1. saria:..... Arenaza Altzariak
- 2. saria:..... Jauregi Okindegia
- 3. saria:..... Martin Erloju-denda

Atxabaltako biztanlegoa gutxituz doaz

1994an zehar gutxitu egin da Atxabaltako biztanlegoa. Hori dio behintzat aurtengo errolda munizipalak

Aurreko urteko hasieran, 1994ko urtarrilak 6.150 biztanle zituen Atxabaltak.

Urtean zehar 110 lagunek herriz aldatu dute eta 38 biztanle hil egin dira. Beraz, 148 lagun izan dira urtean zehar Atxabaltak izan dituen bajak.

Bestaldetik, 45 haur izan dira jaio direnak eta

57 lagun etorri dira beste herri batzuetatik Atxabaltara bizi izatera. Horrela, 104 izan dira Atxabaltak izandako altak.

Beraz, urte berri hau 44 herritar gutxiagoz hasi du Atxabaltak. Orain negua hasi dela kontuan hartzen badugu, sasoi ona da umeak "enkargatzeko", neguaren hotza kentzeko ahaleginetan.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

TXIMAK Hileapaindegi mixtoa

Herriko Plaza, 5- Behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA

ZERBITEK,S.L

Servicio Oficial de Fagor Automoción

Poligono Basabe D-0-1
Tfno: 77 06 88 Aretxabaleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

Berrikuntzak

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre,4
Tfnoa. 79 21 24

"HERRASTI" AKEITA



Aralar kalea,
7

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi,1
☎ 79 71 69

EUSKARAREN HITZARMENA ATXABALTAN

Aretxabaletan euskararen erabilera areagotzeko herriko elkarte ezberdinen artean sinatu nahi den hitzarmenaren berri ematen hasia da Loramendi K.E.a.

Helburua elkarteetan euskararen erabilera bultzatzea da. Bazkide zein herritarrei begira antolatzen diren jardueretan, beren barne funtzionamenduan nahiz

gainontzeko elkarteekin dituzten harremanetan euskararen erabilera suspertzea.

Talde bakoitza hizkuntza egoera diferentean aurkitzen dela ikusurik, konpromezuak ere desberdinak izango dira.

Hitzarmenari, BERBARI izenez identifikatuko dena, urte-beteko epea jarri zaio hasiera batean.

Urkulu beteaz doa poliki-poliki

Heldu da negua. Gure lurraldean hain ohizko diren euri zaparradak etorri dira, eta edurrak ere bere lehengo kukua egin du. Horren ondorioz, Urkuluko urtegia betetzen hasi da. Aste honetan, bere edukieraren %86,5an beteta zegoen,

hau da, 8.654.000 metro kubiko. Orain dela bi hilabete %71,1ean zegoen eta duela urtebete %93,73an. Oraindik euri asko egiteko denbora dago eta Andaluzia aldean duten egoera ikusita, pozik egon gaitezke Urkuluko urtegiarekin.

Umeentzat Gabon Pin-a



Inolako salantzrik gabe umeak dira Gabonetan benetako protagonistak. Olentzero, Erregeak eta gainera, Gabon Pin-ean jolasteko aukera izan dute.



Lasagabaster

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE
TFNOA: 79 27 27 / 79 13 55

Artano Taberna

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

FOTO
Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



KELER



El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzilea

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

Deredua gora, A behera.

1994 ikasturtean, unibertsitateaz kanpo egindako matrikulazioek erakusten dutenez, D eredua gero eta sendoago ageri da (5.000 ikasle gehiago); A ereduak behera egin du (15.000 ikasle gutxiago) eta B ereduak gora-behera gutxi izan ditu.

Datu horien arabera, aurten eskoletan 63.000 ikasle gutxiago matrikulatu izan diren arren, haur hezkuntzan, lehendabiziko aldiz azken hamar urteotan, iaz baino 874 haur gehiago izango ditugu.

(Administrazioa
Euskaraz)

Euskaldunen bilakaera Arabian

Arabian bikoiztu baino gehiago egin da euskaldunen kopurua 1981etik 1991 bitartean, 9.693 izatetik 22.995 izatera pasatuz. Gazteen artean egiten du gora arabar euskaldunen kopuruak, bereziki 45 urtetik beherakoetan.

Hazkunde hori arabarrek nahi izan dutelako gertatu da. Arabarren %75ak dio ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea eta %60k 50 urte barru Euskal Herrian denok jakin beharko genukeela euskaraz.

(Berripapera)

Labaien Lordezkatzeko hautagaiak .

Patxi Goenaga, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegí", eta Adolfo Arejita euskaltzain urgazleak dira Antonio Labaien zenak

"Denok jakinean gaudenez, azken hauteskundeen ondorioz Euskal Gobernuak sortu berria da tripartitoaren bidez osaturik. Honek esan nahi du EAJ-PNV, PSOE-EE eta EA-k bideratuko dutela datozen urteetan Euskal Komunitate Autonomoaren etorkizun politikoa.

Kontestu honetan zer esan tripartitoak euskararen erabilera eta bultzapenari buruz eraman dezakeen politikaz?

"Tripartittoa eta euskara"



Patxi Lazkano

Aldakuntza nabarmenik egongo ez delakoan nago, zeren, nahiz eta gehiengoa talde abertzaleen esku egon, euskarari buruzko politika bipolarizatua dagoenez eta aspaldi honetan euskararen aldekoak nahiko jokaera defentsiboan, ez dut espero Euskal Gobernuak aro berri bati ekingo dionik.

Besteak beste, Euskal Herriko egoera ekonomiko eta politikoak lehenetsun garrantzikoagoa duelako egungo agintarientzat eta gizarteak berak ere euskararen erabilpenari garai batean emandako garrantzia ahuldu duelako.

Beraz euskararen erabilpena indartu nahi bada, mugimendu eta erakunde herrikoiaren bidez egin

euskaltzain osoen aukietan utzitako hutsunea betetzeko hautagaiak. Euskaltzain oso bat hiltzen denean bi hileko epea dago hutsune hau betetzeko hautagaiak proposatzeko

Azken hautaketa, Euskaltzaindiak urtarrilaren 27an

Donostian egingo duen bilkuran egingo da.

Honi dagozkiola, hautagai bakoitzak gutxienez hiruna euskaltzain osoren babes izan duela aspimarratu beharra dago.

(Egunkaria)

**T
X
I
L
L
A
R
R
A**



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28


ARETXABAETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalaketak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

 Zenbaki
Aholkularitza

BasabeIndustrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



AITZIBER
NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Pedro Mendieta, Max Center-en zuzendari nagusia

Bere egoitzaren kokapenak baino, beste hainbat iskanbilet eraman dute sarritan bere izena komunikabideetara. Egia esan, nahiko arazo izan ditu ateak zabaltzeko orduan, baina dagoeneko martxan dabil eta itxura denez gauzak nahiko ondo doakizkie.

Arazo hauek alde batetara autziaz, Max Center proiektu inmobiliario bat da. Eroskik zeukan hedadura-plana ikusita, enpresagintza promozionatzeko eskakizuna zegoen merkatuan. Enpresagintza promozionatzeko negozio berri baten behararen ondorioz sortu zen eta merkatal-zentru berriak sortzea da Max Center-en helburu nagusia: merkatuko ikerketak egin, bidegarritasunak aztertu ondoren proiektuak egin, lur-sailak erosi, zentruak eraiki eta martxan ipini, etab. Ondoren komertzializazioa eta publizitatea. Bukatzeko, hirugarren fasea etorriko litzateke: ustiapena (esplotazioa).

Max Center bi arlotan banatuta dago: alde batetik, promotore-sozietate bat dago, *Max Center Leisa*, ondareak dituena, eta bestetik, gestore-sozietate bat, *Lainter*, Atxabaltan dagoen hau. Barakaldokoa izan zen lehenengo zentrua eta honi Santanderrekoak jarraitu dio. L'Ospitaleten

Duela 7 hilabete inguru , Atxabaltan kokatu zen enpresa dugu Max Center. Bertako zuzendari nagusia Pedro Mendieta atxabaltarra da, herriko alkate-ohia.



(Bartzelona) ere duela bi hilabete hasi ziren hirugarren zentrua egiten eta urte honetarako Bilbo, Madril edo Valladoliden beste bat eraikitzeko proiektua dute. Guztira, 10-12 merkatal-zentru eraikitzea da euren asmoa. Argi dago, beraz, Estatu mailan merkatal-sare bat irekitzea dutela helburu bezala, eta hortik aurrera, agian Latinoamerika, Erdialdeko Europa...

Zaila da, beraz, Max Center-en mugak non bukatzen diren jakitea. Zihur aski, merkatuak berak ipiniko ditu muga hauek, konpetentzia eta irabazien arabera.

Max Center bezalako proiektu bat Atxabaltan aurkitzea, bitxikeria bat da, batez ere bere konpetentzia guztia, *Prica*, *Metrovacesa*, *Continente*, Madrilen

dagoela kontuan izanik. Honen arrazoia, Kooperatiba-Taldeak euskaldunentzat lan egiten duelako da, lanpostuak euskaldunentzat sortuz. Dena dela, Max Center Eukal Herriko edozein lekutan kokatuta egon zitekeen, baina lanpostuei begira, badirudi Atxabalta leku aproposa dela.

Bazkide atzerritarrak ere badaude Max Center-en sartuta, holandarrak adibidez. Beraz, hauek jarritako konfidantzari erantzun egokia eta positiboa emateko erantzunkizuna ere badago Max Center-en aldetik.

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

SantaKurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

URBALTZ



TABERNA

Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA




Hilbeltza ala hil beltza?

Betidanik entzun izan dugu urtarrila oso hilabete txarra dela guztiontzat. Hilabete honetan Gabonetan egindako gehiegikeriak jasan behar izaten ditugu.

1 Askoz gehiago kontsumitzen da Gabonetan ?

2 Salmentak, nolakoak dira hilbeltzan/urtarrilean ?

3 Kontsumitzeko joerak gorantz egin du?



Begibistakoa da gaur eguneko gizartea kontsumoaren menpe bizi dela, edo beste modura, kontsumo-gizartean bizi garela. Ezin hobeto antzeman daiteke egoera hori egun berezi eta jakin batzuk heldzerakoan.

Esate baterako, oro har kontsumorako joerak jan egin gaitu berriz ere pasa berri diren Gabonetan: loteria eta jokuak, hamaika motatako janari eta edariak, jostailuak, erropak, liburu eta diskak, turroi eta gozokiak, etab. Hala ere, zeinek uko egin egun berezi horietan behar direnak eta behar ez direnak ere kontsumitzeari? Produktu eta ondasunak etengabe kontsumitzeko beharra sortzen duen gizarte-motan bizi gara. Oso garbi dago.

Bestalde, merkataritza alorra zain egoten da gu bere sareetan nola harrapatu, eskaintza erakargarriak eta sasi-merkeak ipiniz. Kontuak beranduxeago etortzen dira, eta normaltasunerako bueltak uzten duen zapora garratza pasa behar izaten dute, ala ez?

Dena dela, badirudi merkatarien artean gorabehera eta alde handiak egon behar direla, bakoitzaren produktu eta kalitatearen arabera. Ezberdintasun hauei buruz gehiago jakiteko, Atxabaltako 5 merkatariei hiruna galdera egin dizkiegu. Merkataritza barruan, arlo ezberdinetako 5 denda aukeratu ditugu. Norberak, nahi izanez gero, atera litzake erraz bere ondorioak. Hurrengoak arte lasai egon behar.

P a g a l d a i

1.- Gurea opari-denda dela kontuan hartzen badugu, egun hauetan askoz ere gehiago saltzen dugu. Hau dela eta, nire bi alabak ere bertan egoten dira laguntzen, jende asko etortzen bait da.

2.- Gabon egunekin konparatzen badugu salmentak jaitsi egiten dira, baina inolako zalantzarik gabe urria da hilerik txarrena. Gabonetan jendeak diru asko gastatzen du,

gehienbat jana-ritan, eta gero epe bat behar du erre-kuperatzeko.

3.- Betidanik konparatzen ditugu urte batetik bestera dauden salmentak eta azken aldian nahiko orekatuta daude.



Maria Jesus Pagaldai

" Gabonak amaitzen direnean, zoritxarrez lasaitasuna da dendetan egoten den giroa."

Mari-Merke

1.- Guk bereziki ez dugu egun hauetan askoz ere gehiago saldu. Garbi dago egun hauetan mugimendu gehiago egoten dela, Olentzero dela eta ez dela, baina ez dugu beste dendetako ezberdintasuna igartzen.

2.- Saltzen ditugun produktoak merkeak direla kontuan hartu behar dugu. Horrela, urtean zehar ez dugu gorabehera handirik izaten. Haurrak oporretan daudenean gehiago saltzen dugu.



Esther Fernandez

3.- Kontsumoa ez da gehitu, baina orain umeak, telebistaren ondorioz, marka konretuak eskatzen dituzte, erosketa gareztituz.

Feli Jantzidenda

1.- Guk bereziki, Olentzero egunerako egiten diren oparien ondorioz erropa gehiago saltzen dugu. Baina orokorrean, diru asko gastatzen da egun hauetan.

2.- Beherapen garaian gaudenez, guretako urtarrila hile ona izaten da. Jendeak diru asko gastatu du Gabonetan eta beherapen hauetaz baliatzen da gauzak erosteko.



Feli Gastañaga

3.- Krisia asko igarri da. Baina orainarte egin duen eguraldiak kalte gehiago egin digu. Negua oso berandu hasi da eta jendeak ez du izan orainarte neguko-erropa erosteko beharrik. Guretzat urte txarra izan da.

" Erropa-dendei kalte gehien egin diguna negua hain berandu heltzea da. "

lber

1.- Errege Eguna izan da guretzat egunik onena, nahiz eta orainarte Olentzerorako gehiago saldu. Aurten gehien saldu duguna liburuak izan dira. Gero, beti bezala, loteria ere asko erosten du jendeak, inoiz baino gehiago.

2.- Izugarri igartzen da. Urtarrila eta otsaila oso hilabete txarrak dira. Ia ez dugu ezertxo ere saltzen. Gero poliki-poliki gauzak hobetzen hasten dira.



Idoia San Migel

Gehienbat, liburu eta kuadernoak saltzen hasten gara osterara.


3.- Kontsumoa nahiko berdintsu mantendu da. Dena dela, aurreko Gabonetan jendea ez zen prezioekin horrenbeste arduratzen. Orain erosi bai, baina merkeago.

" Jendeak erosi berdin egiten du, baina orain erosten dutena merkeagoa da "

Leibar Arraindegia

1.- Nik ez dut uste. Jendea berdin etortzen da. Egun hauetan, ganba, otarrainska eta txirla gehiago erosten da. Baina arraina, egun hauetan, oso garezti dagoela kontuan hartu behar da.

2.- Hemen ez da aldaketa handirik ikusten. Jende kopuru bera etortzen da, baina txirlak erosi beharrean ohizko arraina erosten dute osterara.



Fernando Leibar

3.- Krisia igarri dela uste dut. Azkenengo urteekin konparatzen badugu aurtengo Gabonak makalenak izan dira salmenta aldetik. Jendeak gehiago begiratzen dio diruari.

FUTBOLA

(Lehengo Erregionala)

1.- Intxaurreondo	26 +8
2.- Azkuene	26 +8
3.- Tolosaldea	25 +7
4.- Vasconia	25 +7
5.- Tolosa	24 +6
6.- Euskalduna	21 +3
7.- Anaitasuna	20 +2
8.- Danak	20 +2
9.- Ilintxa	20 +2
10.- Orioko	18 +2
11.- Touring	18
12.- Amaika Bat	18
13.- Állerru	16 -6
14.- Zumaiako	16 -2
15.- Soraluze	15 -3
16.- Aretxabaleta	12 -4
17.- Urola	12 -6
18.- Alde Zaharra	12 -6
19.- Bergara	10 -8
20.- Gure Txokoa	6 -12

(Bigarren Jubenila)

1.- Aretxabaleta	32
2.- Bergara	29
3.- Urki A	22
4.- Gazteak	21
5.- Antzuola	19
6.- Almen	12
7.- Arrasate	9
8.- Aloña Mendi	9
9.- Urki B	5

Saskibaloia

(Junior-a Gizonezkoak)

1.- Aralar Kirolak	16
2.- Urbina Maltzaga	14
3.- Ikastola Urmek	12
4.- Almen	10
5.- Askatuak Eskola	8

(Kadetea Emakumezkoa)

1.- Andraitz K.E.	19
2.- Almen	19
3.- Irurok	15
4.- Urbina Maltzaga	15
5.- Almen B	12
6.- Eskoriatza	10

Saskibaloi txapelketa hauetan lehenengo hiru taldeak sailkatu dira hurrengo errondarako. Beraz, gizonezkoetan Almenek ez du sailkapena lortu, bai ordea kadete mailako neskek.

EROSKI KONSUM

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

BITXITEGIA


MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



HIZKUNTZAK

FIRST CERTIFICATE OF CAMBRIDGE

ZAPATUETAN ERE KLASEAK

ORAINDIK GARAIZ ZAUDE!

MATRIKULA ZAITEZ

First Certificate

Zapatuak

9,30retatik - 12,30etara


Araba Etorbidea, 4 Arrasate

First Certificate

Zapatuak

9,30retatik - 12,30etara

Tfnoa: 79 01 32



EGUZKIGRAF

**Aldizkariak
Inpresoak**

Bulegoko materialak


Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA

Tfnoa: 943- 79 18 44

Faxa: 943- 79 29 41

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79

ARETXABALETA

Peña Zubizarreta futbito txapelketak badu irabazlea



Argazkian txapelketa irabazi duen talde eskoitzarra

Gabonak direla eta ez direla, bi astetan ez dugu futbol profesionalik izan.

Atsedetik izan ez dutenak mutikoak izan dira. Horrela, Peña Zubizarreta futbito txapelketa, abenduak 23an hasi zena, urtarrilak 5ean bere amaierara heldu zen. Zoritxarrez, lehenengo postua ez da Atxabaltan gelditu eta Eskoriatza aldera joan da. Rokefot talde eskoitzarra izan da, hain zuzen, txapelketa irabazi zuena, bigarren Peña Litri geldituz.

Talde guztiek eraman zuten sariren bat, baina bi sariri aipamen berezia egin behar zaie:

• Atezain onena: Aitor Oianguren

• Jokalaririk onena: Aimar Leibar.

Preferente mailan tinko

Denboraldi bikaina egiten ari da Preferente mailako futbol taldea. Horrela, urtea amaitzeko berdinketa lortu zuten Bergararen aurka Almenen jolastutako partiduan. Lehengo zatian 0-3 galtzen joan arren, atsedendialdiaren ostean gogo asko jarri zuten eta berdinketa lortu zuten.

Aurreko astean Motrikun jolastu zuten eta etxean galdutako puntua berreskuratu zuten 0-0 berdinduz.

Momentuz, aurten zerbait egiteko aukera dute.

XABIER LAZPIUR URTE BERRIAN ITXAROPENTSU



Xabier Lazpiur

Xabier Lazpiur 24 urte ditu Afizionatu mailan nabarmendu ondoren Banesto taldean fitxatu zuen. Lesio baten erruz ez zuen asko korritzeko aukerarik izan eta Baneston 3urte egin ondoren Euskadi taldera etorri zen ihaz.

• Zeintzuk dira denboraldi honetako helburuak?
Pertsonalki ahalik eta lasterketa gehien korritu. Talde bezala Euskadiko Itzulia, Eibarko Bizikleta eta Espaniako Itzulia dira gure helburu nagusiak.

• Zer moduz zaude fisikoki? Osatu dira minak?
Ihaz baino hobeto nago. Konfidantza eta ilusio handiagoa dut, baina lasterketa faltan nago, erritmo faltan.

• Gogorra egiten da hainbeste denbora errepidetatik kanpo egotea? Nork lagundu dizu gehien?

Oso gogorra da taldekideak korritzen ikustea eta zu etxean egotea. Dena dela, eskertzekoa da Euskadi Taldeko medikuek jarri duten interesa. Baneston nengoela ez nuen arreta hori izan.

• Ze aldaketa dago Banesto eta Euskadi taldeen artean?

Banesto talde indartsuagoa da. Euskadi taldea bertako txirrindulariez osatua dago eta harremanak estuagoak dira. Baneston "izar" gehiago daude.

• Zer da txirrindularitzan gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien ondo ibiltzea, sufrimenduaren fruitua jasotzea eta gutxien, lesioak direla eta, geldi egotea.

Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Izozkitekiki-Gozotegi IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Atxabaltako gazteak kultura lantzen

Gaurko gazteek bideo-jokuetan bakarrik jolasten dutela diote batzuk. Baina hau ez da egia. Hona hemen 3 neska gaztek irabazi duten kultur lehiaketa.



Argazkikoak, Ane, Done eta Olatz dira

Ane Arenaza, Done Larrea eta Olatz Pagaldai izan dira J.M. Aritz-mendiarreta saria irabazi dutenak.

Horrelako lehiaketa batek ematen duen ohoreaz gain, 150.000 pta. irabazi dute.

Idatzizko lana egin dute, 20 orritakoa, eta gaia "Gazteak eta herri ekimena" izan da. Lanaren izenburua "Zereginaren bila" da.

Lehiaketa 14-16 urte bitartekoentzat zen, eta nahiz eta gazte hauek 14 urte izan, lehiaketa irabaztea lortu dute.

Lehiaketa prestatzeko aukera Almen ikastetxean izan zuten, bertako ikasleak dira eta. Ikastolan lehiaketa honetan parte hartzeko edo

tutoritzako klaseak prestatzeko aukera eman zieten. Gure protagonistak lehenengo aukera hartu zuten.

Sari banaketa Arrasaten izan zen, abenduak lan. Lan hau egiteko bi aste inguru egon ziren jo eta ke.

Egin duten txostenaren ardatza gazteek herri batean egin dezaketena da. Horrela, dauden kultur-talde desberdinetan parte hartzea proposatzen dute (Murruxo, Loramendi K.E., Dantza taldea ...) bai eta liburutegira joatea ere, nahiz eta eurak askotan ez joan.

Egin duten txostenak merezi du irakurtzea, beraz nolabait, egin duten lanaren zati bat aldizkarian argitaratu dugu:

"Zer da partizipazioa? eta gazte izatea?"

Galdera hauei erantzuna emateko, adin ezberdinetako bi pertsonengana zuzendu gara:

14 urteko batek:

"Partizipazioa ekintzetan parte hartzea da".

"Gazte izatea, bizitza disfrutatzeko arorik onena".

28 urteko batek:

"Zure denbora librean beste batzuekin erabiltzea".

"Idealista izatea, eta gauzak konpondu daitezkeela pentsatzea eta hortan lan egitea".

Ez dira honetan geratu gure buruhaustea, zenbat eta agian gehiago sakondu, are eta kezka haundiagoak sortzen zaizkigu".

MEMESA S.L.

Santa kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4

Tfnoa: 79 01 29

Aretxabaleta

**PORTASOL
AROSZTEGIA**

Basabe Poligonoa, 1

Tfnoa: 79 34 84

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24

Tfnoa: 79 23 53

ARETXABALETA

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

SantaKurtz, 24 Aretxabaleta


Tfno-Faxa: 79 02 51



**HAIZEA
AKEIETGIA**

Mitarte kalea, Z/G

Tfnoa: 79 85 57



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri, 3 ARRASATE

Tfnoa: 77 11 30



40. hamarkadan, Azbe fabrika konpondu zeneko argazkia

Aurreko Aretxagazetan AZBEkoek Aortutako aurrerapen tekniko bat aipatzen bazen ere gaurko honetan, AZBE-ko aspaldiko langileen ospakizun bat dakargu orrietara.

40. hamarkadan, hau da, gerra ostetxoan, fabrika konpondu eta tailerreko goikaldea berriztu zuenean, Bernardino Zubiak, bere langileei inagurazio bazkaria eskeini zien. Bazkaria, kontatu digutenez, baba zuriak eta ardikia izan zen.

Jende asko agertzen denez eta denon izena jemateko lekurik ez dagoenez, eskerrak, batzuren inenak eta lekuak emango dizkizuegu, besteen izen batzuk ere emango dizkizuegu, baina zuek aurkitu beharko dituzue pertsonak non dauden.

Bigarren lerroan, zutik, ezkerretik eskumara:

Felix Pagaldai, Antonio Aranda, Joze Irizar,

Raimundo Arze, Doroteo Urreta, Bernardino Zubia, Joze Zubia, Ramon Zubia, Rufino (Esteibarkoa), Romualdo Uribetxebarria, Joze M. Amuriza.

Aurrekaldean makurtuta:

Antonio Zuazabeitia, Fidel Zubiria, Eustakio Bengoa, Martin Urzelai, Federiko Jauregi, Valentin Errasti, Gregorio Arana, Jesus M. Antxia.

Ondorengo izenei dagozkien pertsonak aurkitzea zeuen lana da:

Pedro Gaztañaga, Angel Vitoriano, Patxi Urzelai, Mariano Otero, Felix Ingidua, Gregorio Ingidua, Joze Andonegi, Angela Urkia, Visi Alzola, Elisa Aranda, Guillermo Arkauz, Kontxa Berasaluze, Maria Lonbide, Miguel San Juan, Iñaki Zuazabeitia, Salvador Errasti...

Denak asmatzen badituzue, zorionak! Bestela galdetzen hasi zaitzake.

Urte barri, esaera barri



J.J. Aretxaga

"Urte barri, umeak ekarri" esaten du nik asmatutako esaera zaharrak. Eta horixe egin dute **Manu Amozarrain** eta **Itziar Perezek**. Euren alaba **Maidar** izan da 1995ean gure herrian jaiotako lehenengo umea. 3an jaio zen, gabeko 12ak eta 42 minututan. Ea lagun kinto asko izaten dituen, bestela jai daukagu eta.

Beste esaera hau be neuk asmatutakoa da: "urte barri, abade barri". Momentuz abade barririk ez daukagu, baina diakonoa bai. Hilaren 7an **Ramon Maria Elkoro Gabilondo** atxabaltarra diakono egin zuten. Momentuz esan dut, San Pedro egunean abade egingo da eta. Ramon Mariak 50 urte ditu.

Abadeak behar direla esaten da, Atxabaltak behintzat beretako lain produzitzen du.

Batzuendako, barrez, abadeak ez dira hain beharrezkoak; eta erregeak bez. Hala ta be, lehengo egunean hiru "errege" pasatu ziren herritik. Lehenengo **Oier Aranzabal**, gero **Txema Aragonés** eta azkenik **Jose Antonio Zangitu**.

Beharrezkoak direnak aitatu ditugu eta ezin dirua ahaztu. UDAk egindako zozketan **M^o Teresa Arkauz** izan da saritua. 100.00 pezeta irabazi ditu. **M^o Teresa Jon Arriola** futbolistaren ama da. Kasualitate polita. Dena etxean geratzen da.

Etxeko kontuak alde batera itxita Donostiara joango gara. **Manex Larrinaga** insumisoa epaitu zuten joan zen martizenean. Insumisoekin igazko moduan jarraitzen dugu, ez dago aldaketarik. Aldaketak egin behar dituztenen aldetik borondaterik balego, beharbada...

Eta akabetako beste esaera barri bat: "urte barri aldizkari barri". Zenbat gauza barri, ezta? Baina zoritxarrez ez daukat barrikuntzok komentetako lekurik: tamainua, kolorea, langile barria..... Eta ni txoko honetan galduta. Ohituko naiz.

A R E T X A Z O K A

LANAK

- Masailari diplomatuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu. Lehenengo kontsulta dohainik izango da. Telefonoa: 78 24 35

- 21 urteko neska euskalduna, umeak saintzeko edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago. Tfnoa: 79 87 40

- Mota guztietako lanak ordenagailuz pasatzen dira. Interesatuak telefono honetara deitu dez-akete: 79 77 59 (Fernando).

ETXEBIZITZA

- Arrasaten neska bat behar da pisua osatzeko. Prezioa: 9.500 pta. Deitu 79 70 77 telefonora (Aintzane).

- Erdi jantzitako solairua salgai dago San Migel auzoan. Harremanetarako zenbakia: 79 76 72.

- Bi ikasle pisu txiki bat alokatzeko beharrean aurkitzen dira. Interesatuak 79 91 28 zenbakira deitu (Susana). Astegunetan, 8etatik aurrera.

SALEROSKETAK

- Garaje bat salgai dago Andra Mari auzoan. Interesatuak deitu 79 68 35 telefonora.

- Eskoriatzan garajeak salgai daude. Tfnoak:
- 79 16 05
- 79 43 73
- 71 47 27
- 71 41 51
- 71 47 14

*Okindegia - Gaztegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfno. 77 00 81

*Aretxabaleta
Obrador Propio*

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA

Marti

RESTAURACION - BISTROTTERIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16

Tfnoa: 79 01 72

Berriz ere hasten gara
ARETXAGAZETako jolasekin.
Oraingo honetan,
ARETXAGAZETako bazkide
batek, beste lagun batekin, **Burgales
Jatetxean** afaltzeko aukera izango
du. Horretarako galdera ondo
erantzun beharko duzu eta gainera
ARETXAGAZETako bazkide izan.

JAKI GOXOAK ETA GIRO ATSEGINA

Durana, 12 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 20 63 / 79 17 11

BURGALES JATETXEA

**Zergatik du Burgales
Jatetxeak izen hau?**

**a.- Aita Burgosekoa de-
lako.**

**b.- Burgos aldeko janari
tipikoak prestatzen
dituztelako**

**d.- Aitajauna Burgosetik
etorri zelako.**

Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa.:

MARI FELI SORO A

Atxabaltako Txilarra, produktu naturalen dendako arduraduna



Mari Feli Soroa

" Produktu natu-
ralak ez dira garestiak,
baina hauek erosi eta
gainerabetikoak ere
erosten badira, eros-
ketak garestia iretzen
du baina ez produktu
naturalen erruz".

- **Nolakoa izan da 1994a orokorrean ?**
Ez da txarra izan. Nahiz eta denok gehiago
espero ezin naiz kexatu.
- **Ze produktu mota saltzen duzue Txillarran ?**
Gehienbat bedarrak eta osagarri dietetikoak
saltzen ditugu. .
- **Nolakoa da jendearen erantzuna produktu
hauen aurrean ?**
Erantzuna ona izaten da. Nahiko jende etortzen
da.
- **Saltzen duzuen produktuei buruz nahiko
informazio du jendeak ?**
Baietz uste dut, baina askotan jendeak betiko
gauzak erosten ditu eta ez du arreta asko jartzen
erosten duenari buruz. .
- **Zer eskatzen diozu urte-berriari ?**
Aurrekoa baino txarragoa ez dadila izan.
- **Elurra ala euria?**
Elurra gehiago gustatzen zait. Paisaiak
politagoak gelditzen dira.
- **Katarroa kentzeko botika ala bedarra ?**
Bedarra, inolako zalantzarik gabe. Askoz ere
osasuntsuagoa da.
- **Ze izan da 1994an gehien naskatu dizuna ?**
Egon diren gerrate guztiak eta boterea dutenek
egin duten gehikeria guztiak.
- **Eta gogokoena?**
Osasuna eduki dugula.
- **Ze moduz portatu da OIentzero ?**
Nahiko ondo. Eskatu dudana ekarri dit behintzat.
- **Garestiak dira produktu naturalak?**
Ez dira garestiak, baina jende askok produktu
hauek erosteaz gain betikoak ere erosten ditu eta
horrela garestiak direla dirudi.

ARRASATE

13

EGUAKOTXA

SANTAMASAK 94 ARGAZKI LEHIAKETA

Lehiaketaren erakusketa izango da eta Harresi Aretoan izango du hasiera.

KARTEL LEHIAKETA

Haratuzteak 1995 Kartel Lehiaketa egongo da.

14

ZAPATUA

TXATXIARTISTEN TAILERRA

Irratigintza eta telebistagintza, Txatxilipurdik antolatuta.

15

DOMEKA

JOVEN ORQUESTA NACIONAL DE ESPAÑA

Arratsaldeko 7etan Amaia antzokian, Arrasate Musikalek antolatuta.

22

DOMEKA

MUSEO INDUSTRIALA SORTZEKO BIDEAN

Made in Arrasate. Erakusketa honen azken eguna izango da.

ZALDIBI-AMEZKETA IRTEERA

Besaide M.E.ak antolatuta

BERGARA

4

EGUAZTENA

BERGARAKO ESKULTOREEN ERAKUSKETA

Urtarrilaren 4tik 15era izango da erakusketa.

16

ASTELEHENA

GURE GORPUTZA ETA KONPLEJOAK

Kultur-etxean 6,30retan emango den hitzaldia.

17

MARTIZENA

ANOREXIA ETA BULIMIA NERVIOSA

Kultur-etxean 6,30retan emango den hitzaldia.

18

EGUAZTENA

AFEKTIBATEA SEXUALITATEAN

Kultur-etxean 6,30retan emango den hitzaldia.

20

EGUAKOTXA

PINTURA ERAKUSKETA

Pintura ikastaroaren lanen erakusketa.

OÑATI

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

**TELEFONO
INTERESGARRIAK**

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Ludoteka 79 01 05
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33

**BESTELAKO
TELEFONOAK**

Udaltzaingoa:

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik:

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 18
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

22

DOMEKA

JUAN KARLOS IRIZAR ETA SORAYA AGIRREGOIKOA

Bikote honek, kontzertua eskainiko du Santa Ana Antzokian, 7,30etan.

26

EGUENA

LASARTEKO ABESBATZA

Gaueko 8etab, Santa Ana Antzokian izango da.



Juan Carlos Irizar eta Soraya Agirregoikoa



Europar 1994 Urteko Kotxea

Lortu egin du. Kritiken eta salmenten arrakasta bihurtu da, Izan ere oso gutxitan izan da diseinuaren, segurtasunaren, kontrolaren eta gidatzeko plazerraren arteko konbinazio hain perfekturik. Oraindik ezagutzen ez baduzu, sar zaitez arrakastaren munduan. Mondeoa da bere mailako kotxeetan bertsio guztietan airbaga, 16 balbula edo Turbo Diesel motorrak, ainguraketa

eta pretensoredun segurtasun uhalak, eserleku higigaitzak eta puntu klabe guztietan egitura berrindartua daukan lehen kotxea.

Era berean, direkzio asistitua, aire girotua eta Micron Air Filtro sistema. Eta gehiago oraindik: ABS, Trakzio Kontrol Elektronikoa eta albokoarentzat airbaga.

Zatoz barne-indardun edertasuna ezagutzera.



Mondeo bat probatu nahi baduzu, dei ezazu dohain 900 51 51 51 telefonora.

MUGARRI 